

“ORTIK ETA EMENDIK”

“Repertorio de locuciones
del habla popular vasca”

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos
Año 40. Tomo XXXVII. N.º 1 (1992), p. 169-174
ISSN 0212-7016
Donostia: Eusko Ikaskuntza

Tolosakoa eta Mokoroa izatea, mundura abizen jantzi batekin jaiotzea da. Eta Justo Mari Mokoroa eta Mujika horrela sortu zen mundura, 1901eko maiatzaren 28an. Eta mende bereko larogei eta hamargarren urtean hil zitzaigun Bilbon, azaroaren 7an.

Goian bego Aita Justo Mari Mokoroa

Abizen ospetsu batekin jaio zela mundura? Harek ibili eta gero ez du dizdirarik galdu Mokoroa abizenak. Ez da gezurra, Justo Mari jaio aurretik, izena egina zeukatela mokoroatarrek Tolosan; baina gure garaian ospetsurik izan bada ahaidego horretan, hori Justo Mari izan da. Eta beste zenbait mokoroatarrek beste zerbaitekin izan duten lotura, Justo Maritarrek euskararekin izan dute. Eta ez jende eskolatuaren artean bakarrik. Eskolarik gabeko jendearen artean ere hala izan dute.

Zeinek ez zekien Mokoroaenea non zegoen Tolosan?

Bai bertakoek eta bai kanpokoek, ezaguna zuten liburu-denda hura. Eta ez kale nagusian zegoelako, euskarazko liburuak han saltzen zirelako baizik. Nahiz elizako nahiz bestelako, euskarazko liburuen bila beti Mokoroaneara joaten ginen. Eta denda hura Justo Mariren familiarena zen, edo haiek zeukaten behintzat garai haietan.

Mokoroa abizena, beraz, euskararen kutsua zuena zen guretzat txiki-txikitatik. Gerora, eskolan ikasten ez genuen etxeko hizkuntzaz arduratzen hasi ginenean, laister egin genuen topo berriro abizen berarekin. Lan haundirik gabe lotu genituen gure txikitako denda eta gaztetako idazlea. Guri dotrin berriak saltzen zizkiguten emakumezko haien anaia zen Justo Mari Mokoroa idazlea.

Hala ere, egia esan, gure eskuetara lehen-lehenik iritxi zen Justo Mariren idazkia, ez zen euskerazkoa izan. "Genio y lengua" sonatu hura irakurriz ezagutu genuen idazlea. "Ibar" ezi-zenaz ere orduan jabetu ginen. Irakurri ez duenak jakin beza, gure hizkuntza duela gai liburuak eta egileak zera erakutsi nahi ligukeela: geurenezko gure izatearen muina, gure hizkuntza dugula eta hori gabe ez dezakegula ezagutu geure bururik eta aditzera eman gure nortasunik. Eta tesi horren osagarri, zera dakar: adierazia izan dela iadanik gure izatea geure hizkuntzan. "Mamitu" du Herri honek bere "arnasa" euskaraz. Orixeran "Euskaldunak" poema da obra hori.

Ez naiz nor esateko Ibar argi, zorrotz eta zehatzaren teoria horiek horrela diren edo behar luteken. Garai harteko euskalzale guztien eskuetara zabaldu zen liburu bat dela esango dut bakar-bakarrik, eta zabaldu ere eskuz-esku egin zela, eta pizkunde garaiko jende gartsu haren buruzpidea ezagutzeko primerakoa dela.

Eta euskara eta herritasuna gai dituen erderazko lan honen bidez ezagutu nuela Justo Mari Mokoroa esan ondoren, esan dezadan lehenbaitlehen, eta aparteko ezpain-bueltarik gabe, tolosar paragabe honek sortu izandu didan halako irudipen mikatz bat. Zera iruditu izan

zait beti: Mokoroak gauzarik garrantzizkoenak erdaraz idatzi ote dituen. Barka biezait berak —harek egingo didala badakit. Ez neukan esan beharrik ere.—, eta barka biezaidate, batez ere, haren zaleek; baina hori esan beharra neukan.

Ez neregatik bakarrik. Beste zenbaitzurengatik ere esan beharra neukan. Bai bait dakit izango dela norbait horrelako aitzakiren bat emango dionik “Repertorio de locuciones del habla popular vasca” horri. Zergatik ez egin, esaterako, “Introducción” hori euskaraz? Zergatik ez egin, “esaera” bakoitzaren adierazpenak euskaraz? Hitz batean, zergatik ez argitaratu liburu osoa euskara hutsean? Gainera, lehen hortxe geneukan Koldo Izagirreraren “Euskal lokuzioak”.

Bego horretantxe nere sentimendu gazi-gozo hori eta heldu diezaiodan Mokoroaren lan haundi eta eskergaitz honi.

“Itzaurrea” Antonio Zavalarena du. Gure tolosarra ez zen urrutira joan aurlezle hila. Beste tolosar bat aukeratu zuen horretarako. Ez dut uste, Euskal Herri osoa pasata ere, hoberik aurki zezakeenik “Auspoa” egin diguna baino. Inor gutxi da beste tolosar honek baino hobeki herriaren ahotik jalki den euskara ezagutzen duenik, eta dagoena biltzen eta berria eragiten ahalgindu denik. Beraz aparta aukeratu du Mokoroak hitzaurregilea.

Ohizko apaltasunez hartzen badu ere zeregin hori bere gain. A. Zavalak, abilezia ere ohizkoz burutzen du bere lana. Irakurtzekoa da. Adibide agokiz eta hizketa lauz aditzera ematen digu Zavalak zer den “locución” esaten zaion esamolde horietako bat. Nafarroako Galipentzu herriko ahuntz-zaiarena, besteak beste, oso polita da. Aita Zavalak ordu onean datorkigula dio Mokoroaren liburua. “Gaur egunean euskal esaldiak nola ditugun galde diteke” dio berak. Eta erantzuna berehala dator: “Ez guk nai bezain indartsu eta sasoiko”. Eta ondorenean euskararen nolahalako erabilera salatzen digu tolosar jakintsuak. Horra hor, bada, tolosar haundi bategi beste tolosar baten lan itzel bati egiten dion hitzaurrea eta ematen dion iritzia. Ez utzi irkurtzeke Zavalaren “Itzaurrea”.

“Aita Mokoroa’k ere eskeñi bearko luke beste itzaurre-moduko bat, bere lana nola egin duen adieraziz”. Kontseju hori ematen dio hitzaurregileak liburugileari eta entzuten du eskolapioak, nola ez, jesuitaren esana. “Introducción” delakoan ematen ditu xehetasun guztiak. 13 urterekin eskolapio joan eta 24 urtetan Chilen dagoen gizon honek, berehala ekiten dio Amerika aldean esaldi edo esamolde edo esan horiek biltze lanari. Ez euskara galdu beldurrez. Euskara jatorrari eutsi nahiz baizik. Beldur da, euskara beurenezkoa dutenei entzun ezik, bere euskara urardotuko ote zaion. Hori gerta ez dakion, eta herriaren berezko moldeetan euskara erabili ahal izateko, esamolde horiek biltzeko lanari ekiten dio. Ez da oraingoxea, beraz, gure tolosarraren biltze lana. Ia mende bateko ekinaren fruitua dugu “Repertorio de locuciones del habla popular vasca” hau. Bai izan behar ere! Nola jaso bestela 92.167 esaldi bere maisutzaiko beste lan guztien artean? Milaka horiek guztiak ditu Mokoroaren obra honek. Eta jasotakoak ez dira horiek bakarrik. Badu bazterrera utzirik. “Fué preciso fijar un tope, por lo que una buena parte de cuadernos quedaron sin incluir”. 80 bat koadernotan zeuzkan bilduak eta bakar batzu gordean gelditu behar izan dute. Hala ere 92.167 badira. Hori lan puska! “Alimaleko lana”, gure senide ipartarrek esango luketen bezala.

Eta “¿Valor práctico de este repertorio?” galdetzen du egileak. Bere buruari egiten dion galdera horren erantzuna lehendik ere emana zuen “Ibar” harek bere “Genio y lengua” liburuan. Herritasuna, hau da, gure herriak bere kondairan tokatu zaion inguruneari eman dion erantzunaz sortu duen kultura, esaldi horietan agertzen zaigu, beste inon ez bezala. Kultura horren jabe izan nahi duenak, beraz, eta horretan bizi, nahitezkoa du esaldi horien espiritua eta berorien letra. Hor ageri da herri honen anima. Horik kanpora dabilena, ez daiteke euskaldun betea izan. Ikus, beraz, nolako garrantzia duen Euskal Herri jator baten berreraikuntzan.

Ederki asmatu du aditzera ematen hitz gutxitan bere “Introducción” horren azken hitzetan: “Mi prueba de amor al alma de Euskalerría”.

Bere tesi horren aldeko iritzi sorta luze batez hornitzen du sarrera. Luze ari dela eta bide-tik aterata bezala lebilkeela uste lukeenarentzat zera dio: “Los más avisados reconocerán que no hablo por hablar ni escribo por llenar páginas”. Ez dakit nik “erneen” horien artean sartu edo ez neure burua, baina nik ere igertzen diot badarabilkiela azpi-idea bat, gehiegi nabarmentzen ez dena, sarrera horretan. Euskara batuaren leloa sumatzen zaio azpitik. “... no impuesta ni propuesta” izan behar omen duena, eta “... lenguajes formalizados o teóricamente orientados por gramáticos, tratadistas o tecnócratas” horietakoa ez omen dena.

Denok badakigu Aita Justo Mari Mokoroak, gizon zintzo, idazle fin eta euskalzale amorratuak, zertsu uste zuen kontu horietan. Pentsamendu hori hor dago hitzaurre horren guztia- ren barne-barnean. Ohar hau ere, besterik gabe, egin beharrekoa zela uste dut, “avisado” den irakurleren bat etor baledi ere.

Eta esaera edo esaldi edo esamolde edo esan edo lokuzio direlako horiekin hasi aurretik, baduzu beste atal bat, hor dagoela jakin beharrekoa. “Fuentes bibliográficas” duzu. Hor erakusten zaigu non duten beren jatorria 92.167 lokuzio horiek. Gero, esan bakoitzaren barre- nean, zenbakiz eta letraz adierazita, hortxe ikusiko duzu lokuzio bakoitzaren gurasoak zein diren. Letra nahiz zenbaki bakoitzak zer esan nahi duen jakiteko, berri- z, beha ezazu 75 orrial- dea. Lastima da bigarren tomoak ez edukitzea “Fuentes..” delako zatia. Beti lehenengo to- mora itzuli behar duzu bigarren-eko milaka eta milaka esan horien jatorriaren hila. Huts horixe badu, nere ustetan, obra ikaragarri honen argitalpenak. Eta horrenbestez iritzi gara edukinera.

“Plan general” delakoa beha ezazu eta hor ikusiko duzu zertaz diharduten 92.167 esan horiek. “Temas o categorías” direlakoan arabera, XXI sail egiten ditu lehenik; eta horietako bakoitza “Conceptos” direlakoetan xehetzen digu gero. Eta bakoitzean esaten zaigu zenbaka- rren esalditik zenbakarrenera artekoak biltzen dituen bakoitzak. Hor bada obra haundi horren egituraketa.

Egileak, “¿Qué valor práctico?” duen, edo dezakeen, galdetzen du obra honek. Eta guk ere galdera bera egiten dugu. Zertarako balio diezaguke bilduma itzel honek? Nik, ia edozer- tarako balio duela esango nuke. Entretenitzeko ere bai. Zer da, izan ere, entretenimendu poli- tagorik, adibidez, idea bera zenbat modu ezberdinez eta berdintsuz adierazten dugun ikustea eta konparatzea baino? Jolas zoragarri horretarako ere balio digu obra haundi honek.

Jolas modu horretaz ez al daiteke balia irakaslea, bere ikasleei denbora pasa bezala eus- kara erakusteko? Eta nolako euskara gainera! Euskararik biziena, bitxiena eta jatorrena. Kon- paraketa horretan ederki ikusi ahal izango luteke ikasleek, nola bereizten garan euskaldunok gauzak esatean; baina aldi berean nola eta zertan elkartzen garen ere ikasiko luteke. Hor bait dago, ñabardura guztien azpian, inork uste baino gehiago elkartzen gaituen gramatikazko eta morfologiazko e- struktura. Hori ikastera iritxi behar du ikasleak eta horretarako jolas modu ho- ri bide eroso- a luke.

Baina irakasle-ikasleen arteko lanak ez luke hor bukatu beharko. Esaera horiek dakarten kondaira, etnografia eta abar ere agertu beharko lituzteke. Horrela hizkuntza askoz aberatsa- goa gertatuko litzaioke ikasleari eta askoz gustagarriagoa. Eta askoz barrurago sartuko litzaioke ta askoz heldu-leku gehiago izango lituzke, barnean eta gogoan geldi dakion eta ahantz ez. Bestela irakatsita, saporerik gabea gerta daitekeen hizkuntza, horrela mila sapor- edun izango litzateke. Horra hor, bada, zertarako balio dezakeen Mokoroaren obrak irakaskuntzan.

Idazleari, berriz, ez dago ezer esan beharrik. Berak badaki ongi asko, bere suskarari graziaren izpirik eman nahi badio, esaera horien gatza eta piperra nahasi beharko dizkiola. Lokuzio horien hornidura dela hizkuntzaren grazia. Hori berak daki ongien idazleak.

Eta bai irakasleak eta bai idazleak, lokuzio horietaz baliatzean, hizkuntzari zor diogun leialtasuna gorde besterik ez du egingo. Bildu ere leialtasun horrengatik daude bilduak esaera hauek, biltzaileak berak esan digunez. Jainkoak zerua diola lan ikaragarri honengatik Aita Justo Mari Mokoroari.

Joxe Mari Aranalde